

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko irailaren 21a. IX. urtea. 2.404 zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Jose Luis Rebordinos Donostiako Zinemaldiko zuzendaria

«Tolosako Zine Klubaren moduko ekimenek ikusleak hezten dituzte»

Gaztelun bizi den Jose Luis Rebordinosek bigarren urtea du Donostiako Zinemaldia zuzentzen, filmen eskaintza «ausarta» izango duela ardatz adierazi du zinema adituak

Tolosaldearekin lotura duten hiru pelikula ikusi ahal izango dira Donostian datozen egunetan: 'To Say Goodbye', 'Leku hutsak, hitz beteak' eta 'Sua' **2-3**



Tolosaldeko euskal preso eta iheslarien senideen prentsaurrekoa, Villabonan. A. MAZ

Presoen senideen ustez egoera «jasanezina» da

Tolosaldeko euskal preso eta iheslariak «suntsitu» nahian dabiltzala salatu dute senide eta lagunek, baina beraiek argi dute ez dutela etsiko **6**

Ekitaldi ugari egingo dituzte Tolosan, Gorren Eguna dela eta

Jarduerak Gainditzen elkarteak antolatu ohi duen Sentsibilizazio Astearen barruan kokatu behar dira; bi erakusketa ere ikusi ahal izango dira **3**

LAB sindikatuak herritarrei greba orokorarekin bat egiteko deia egin die

Tolosaldeko eta Leitzaldeko enpresa askok egin dute jada, irailaren 26ko grebarekin bat **4**

Hasieratik dauden zortzi bazkideak omenduko ditu Txintxarrik

Alegiako elkarteak 50. urteurrena ospatuko du asteburuan; bihar dute bazkideen bazkaria eta gero izango da omenaldia **7**

Ireki atea Zuntzari

15Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz, **16'9** €/hil urebetez

Alta (p.e) eta instalazioa **DOAN**
Helmen handiagoko Wi-Fi N Kable-modema, abiatuak handienarekin. **DOAN**
Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean **DOAN** eta **BETIHO**

Orain, mugikorretarako deiak barne

logika line
943 31 86 11
San Francisco, 19 Tolosa

euskaltel Barneko sifria

Jose Luis Rebordinos ◊ Zinemaldiko zuzendaria

Bigarren urtea du Donostiako Zinemaldian zuzendari moduan; esperientzia «gogorra, baina era berean polita» dela dio, «zinema gustuko baduzu, luxua baita Donostiakoa bezalako jaialdia egitea».

«Zinemaldia Donostiatik atera eta Tolosa bezalako herrietara zabaldu nahi dugu»

Iñigo Terradillos Gaztelu

Bigarrenez zuzenduko du gaur hasiko den Donostiako Zinemaldia Gaztelun bizi den Jose Luis Rebordinos (Errenteria, 1961). Esperientzia «konplexua baina oso polita» izaten ari dela dio. «Glamourra eta eskaintza ausarta» izango ditu ardatz 60 urte betetzen dituen jaialdiak.

Nola dator aurtengo Zinemaldia?

Aurtengoa oso berezia izango dela uste dugu. Oso interesgarriak diren film ugari daude, oso indartsua izango da, azken urteetako politena. Dena oso ongi joango dela uste dugu, beraz, gozatzea geratzen zaigu, bai guk bai eta ikusleek ere.

Zuzendari bezala bigarren Zinemaldia duzu. Espero zenuen modukoa al da?

Esperientzia oso polita da. Zinema gustatzen bazaizu horrelako jaialdi bat egitea luxua da. Baina, aldi berean, gogorra eta konplexua da. Urte gogorra igaro dugu, ekonomikoki une zailak baitira.

Aurrekontuan eragin zuzena izan al du?

Babesle asko joan zaizkigu, baina pixkana beste batzuk lortuz joan gara, eta azkenean hasieran genituenak baino gehiago ditugu. Beraz, gustura gaude.

Urteurren borobila da aurtengoa.**Zerk eragingo du berezi aurtengo jaialdia?**

60. Zinemaldia izanik jaialdi handiagoa, indartsuagoa eta bereziagoa egin nahi izan dugu, eta horregatik, lantaldeak edizio arruntetan baino tentsio handiagoa izan du. Baina, oso pozik gaude egindakoarekin. Bi gauza nabarmenduko nituzke. Batetik bost izarrek jarriko duten glamourra, eta bestetik, film oso berezi eta anitzen aukeraketa. Sail ofizialean ospea duten izenak dauden bezala, *Horizontes Latinos*, *Zuzendari Berriak* edo *Zabaltegi Berriak* sailetan eskaintza ausartak eta zinema ulertzeko forma berriak topatuko ditugu. Osagai guztien uztarketak oso emaitza aberatsa emango du.

Best Donostia Sari emango dituzue aurtengoan.

Urteak generamatzen zinearen izar handi hauen atzetik. 60. jaialdi izanik, gure ideia 4-5 izar handiri Donostia Saria ematea zen. Baina, ezaugarri bat izan behar zuten, egun zinean lanean aritzea, eta horrela, egiten ari diren azken filmarekin etortzea.

Filmen aukeraketa egitean asko geratzen al dira atzean?

Askotan gertatzen da jaialdian egotea nahi duzun film bat azkenean ezin dela sartu, bai egutegi arazoengatik, beste jaialdi batera doalako edo beste arrazoi batenegatik. Aurtengoan, oso pozik gaude, bereziki sail ofizialak duen kalitate eta indarrarengatik.

Atzean geratzen direnekin eztabaida ere sortzen da, eta presioaz ere hitz egiten da.

Beti esan dut presiorik ez dugula izan, ez genuke onartuko inondik inora. Gure irizpideen arabera saiatzen gara aukeratzeko gure aukeraketa hobekien egokitzen diren filmak.

Zinezaleak al gara?

Beste lurraldeetako herritarrekin alderatuta, gipuzkoarrak, oro har, zinezaleak garela esango nuke. Zinema ezagutzen dugu, Zinemaldia gertutik bizitzen dugulako, eta zine klubengatik ere bai.

Zer iruditzen zaizu Tolosako Zine Klubaren lana?

Eredugarria da. Filmen programazioa onartzen dutela iruditzen zait, zine komertzialaren eta zine klubaren nahasketa eginez. Oso lan ona egiten ari dira. Ni gutxitan joaten naiz, baina euren lana jarraitzen dut, lagunak baititut antolaketa laguntzen dutenak. Horrelako ekimenek sortu eta hezten dituzte ikusleak.

Zinemaldiarekin loturiko ekimenak ere izango dira Tolosan.

Topic zentroarekin elkarlanean ari gara pasa den urtetik. Iazko *Horizontes Latinos* saileko film bat emango dugu, Kolonbiako *Todos tus muertos* filma, hain zuzen. Horrekin lotuta, latinoamerikar jatorriko txotxongiloen erakusketak jarriko dute, eta pelikulen kartelak ere izango dira ikusgai.



HITZA

Zein da elkarlan honen helburua?

Zinemaldia Donostiatik atera, eta jaialdiak Topic bezalakoetan lekua izatea, bertako herritarrek gerturatu daitezten.

Beldurrezko zinemaldia faltan botatzen al duzu?

Bizitza osoan botako dut faltan. 21 urte izan dira, oso urte politak. Ez dakit noizbait itzuliko naizen hura zuzentzera, inoiz ez baita jakiten zer gertatuko den, baina beti gordeko dut nire oroitzapenetan, nire bizitza profesionaleko

unerik oparoenetakoak izan baidira.

la bizitza osoa zinemaren. Nondik datorkizu zinemarekiko zaletasuna?

Txikia nintzela, amonak zinemara eramaten gintuen. Gero, nerabezaroan, liburuak eta pelikulak oso gogoko nituen. 17 urterekin lagun batzuekin zine kluba sortu genuen Errenterian. Horrela, pixkana pixkana zinemak harrapatu egin ninduen, urte batzuk geroago profesionalki lanean hasi arte.

Donostiako Zinemaldia Topic zentroan, bigarrenez

I. Terradillos Tolosa

Pasa den urtean Donostiako Zinemaldiarekin hasitako lankidetzari esker, aurten ere, Topic zentroa zabalduko da nazioarteko zinema jaialdia. Batetik, film bat emango dute, eta bestetik, zinemaldian parte hartuko duten pelikulen eta horiekin zerikusia duten kartelak eta txotxongiloak jarriko dituzte.

Filmari dagokionez, pasa den urtean Donostiako *Horizontes Latinos* sailean eman zuten *Todos tus muertos* kolonbiar filma

emango dute, datorren asteartearen, hilaren 25ean, 22:00etan, doan. Carlos Moreno zuzendariaren filma *Eraikitzen Bidean* sailean eman zuten 58. Zinemaldian, eta besteak beste, argazki onenari saria jaso zuen iazko Sundance jaialdian, eta Rotterdango jaialdian sail ofizialerako hautatua izan zen. Kolonbiako indarkeria da filmaren gaia, basakeria batez jabetzen den baserritar batek bizi duen mehatxuaz, hain zuzen.

Filma ikusteko aukeraz gain, Donostiako Zinemaldiko *Eraikitzen Bidean*, *Hamar urte Latinoa-*

merikako Zinemarekin sailean parte hartuko duten pelikulen kartelak jarriko dituzte ikusgai Topic zentroan. Jaialdiak irauten duen bitartean egongo da bertan, hau da, gaurtik datorren larunbata, hilaren 29a bitarte, Tolosako txotxongilo zentroaren taberna dagoen zonaldean.

Bestalde, *El Revolucionario* txotxongiloa jarriko dute ikusgai. Mexikoko iraultzaren mendeurrenaren eta independentziaren berrehugarren urteurren ekitaldian parte hartu zutenetako bat izan zen.



‘Todos tus muertos’ film kolonbiarraren irudi bat. HITZA

Donostiako Zinemaldia nazioarte mailan ezaguna den arren, aurtan, Tolosaldeak ordezkari izango du, bertan eskainiko dituzten hiru filmerekin.

Eskualdea pantaila erraldoian

Itzea Urkizu

Donostiako Zinemaldiaren historia luzean, nazioarteko aktore, zuzendari, gidolari eta filmeez entzutea eman diote jaialdiari. Atzerriko artisten *glamour* edo xarma horretatik haratago, ordea, hemen, gertu gertuan, bada zinema maite eta sortzen duenik ere.

Horren erakusle dira, datozen egunotan Donostian ikusi ahal izango diren hiru film: *To Say Goodbye*, *Leku hutsak*, *hitz beteak* eta *Sua*.

Hirurek dute lotura eskualdearekin, Tolosaldearekin, eta helburu, asmo, teknika eta genero desberdinetakoak diren arren, zinemaren mundua aberasteko balioko dute.

Gerragatik joandako haurrak

Animaziozko filma da, *To Say Goodbye*. 1937an Euskal Herritik Ingalaterrara joan behar izan zuten 4.000 haurren inguruan sortutako istorioa da, eta Izaskun Arandia tolosarra aritu da gidolari lanetan.

Tolosarrak azaldu duenez, 2010 inguruan gai berari buruzko fikziozko gidoi bat idazten hasi zen, eta erdi bidean, Alicia Pozorekin, Southampton Unibertsitateko irakasle batekin, topo egin zuen. Gai honen inguruan hainbat ikerketa egindakoa zen Pozo, eta Euskal Herrira itzuli ez ziren haiek elkarriketatu zituen.

Izaskun Arandiak elkarriketeta horiek ikusi, eta gaiari gehiago sarkentzeko materiala bazegoela pentsatuaz sortu dute filma, Matt Richards zuzendariarekin elkarlanean.

Zinemaldiko Zinemira sailean izango da animaziozko pelikula hau, eta Serbitzu Saria jasotzeko hautagaia da, beraz.

Ordutegiei dagokienaz, irailaren 27an 18:15ean eskainiko dute, Trueban; hilaren 28an, 18:30ean, Principen, eta irailaren 29an, berri, Antiguu Berrin, 18:15ean.

Idazle baten sortze prozesua

Bernardo Atxagari buruzko *Leku hutsak*, *hitz beteak* dokumentala izango da, Zinemaldiko estreinaldirik entzutesuenetakoa.

Hau ere, aurrekoaren gisa berean, Zinemira sailean programatu dute, eta euskaraz proiektatuko duten lan bakarretakoa izango da.

Asteasuko idazlearen ibilbideari buruzko lana da dokumentala, eta Joxe Anjel Arbelaitzek zuzendu du; idazlea berak idatzi du, gainera, gidioa.

Ordubeteko lan honetan, Bernardo Atxagak bere nobela eta poemaren sorburua azalduko du, beste hainbat gauzaren artean: «Idazle moduan zein kezka, burutazio, lan egiteko modu dituen erakustea da dokumentalaren asmoa», zuzendariaren arabera; Asteasu izango da, beraz, filma garatuko den txokoetako bat.

Leku hutsak, hitz beteak ikusteko hiru aukera izango dira. Lehen, irailaren 27an izango da, Antiguu Berri zinemaren, 22:45ean. Hurrengo egunean, hilaren 28an, Principen eskainiko dute 20:30ean, eta azkenik, irailaren 29an izango da azken proiektzioa, 19:30ean.

Autogestioaz pantaila handira

2005eko maiatzera atzera egin behar da, *Sua* filmaren sorburuetara.

'To Say Goodbye' eta 'Leku hutsak, hitz beteak' Zinemira sailean ariko dira

'Sua' filma III. Zinemaldi Alternatiboan eskainiko dute

ra iristeko; orduan hasi zen, Eneko Aritzaren lagunak taldea, pelikularako lehen irudiak grabatzen.

Ibarrako talde honek egindako filma, aurtan hirugarrenez ospatuko duten Zinemaldi Alternatiboan eskainiko dute, Donostiako Kortxoenea Gaztetxean.

XVII. mende hasieran Lapurdiko inkisizioarekin hasiko da filma, eta Pierre de Lancre pertsonaia garrantzitsua izango da. Euskaldunen kulturaren emakumeak izango dira, dantzak, hizkuntza, janzkerak eta abar ez zitzaizkion gustatu, eta inkisizio prozesua hasi zuen, 500 haur epaituz eta 3.000 lapurtar sorgintzat joz.

Hau abiapuntu hartuta, Euskal Herriko historiaren zati bat kontatuko du autogestioaren bidetik aurrera ateratako film honek. «Jendeak emandako laguntzarekin nahiz ekimen sortzaileak antolatuz, dirua lortu dugun», azaldu dute egileek. Horrela beraz, sortu zaien galera ekonomikoei erantzindien bidez erantzungo diete.

● tolosaldea@hitza.info

Gorren Nazioarteko Eguna Tolosan ospatuko dute

Gaunditzen elkartearen X. urteurrenean, Gorren Komunitateak IX. Sentsibilizazio Astea ospatuko du

Eneritz Maiz Tolosa

Gorren Komunitatearen IX. Sentsibilizazio Astea hilaren 24tik 29ra ospatuko da, Tolosan. Aurtan, Tolosaldea-Goierriko Gorren Elkarteak bere X. urteurrena ospatuko du. Euskal Gorrak federazioaren eta Fevapa Gorren Familien federazioaren laguntza izan dute Sentsibilizazio Astea antolatzeko.

Gainera, aurtan, Gorren Nazioarteko Eguna, Tolosan ospatuko dute. Hilaren 29an, larunbatean, izango da, eta egun osoko festa prestatu dute. Julian Rodriguez, Alberto Etxeberria eta Alvaro Or-



Rodriguez, Etxeberria eta Ortega izan ziren aurkezpenean. E. MAIZ

tega izan ziren azalpenak eman zituztenak. «Hilaren 29an, Gorren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu, eta egun honen helburua gorren errealitatea gizarteari gerturatzea eta ezagutaraztea izango da», adierazi zuen, Ortega.

Pertsona gorrek, gainerakoek bezala bete behar dituztela beraien lege eta betebeharrak eka-

rra zuten gogora. Baina entzuten dutenekin alderatuz gero, oraindik, ez dituztela eskubide berak aldarrikatu zuten.

Gaunditzen elkarteko kideek, hainbat alorretan dauden oztopok «apurtu eta gaunditu» behar direla adierazi zuten. Administrazioei, berdintasunera iristeko legeak betetzeko eskakizuna luzatu zieten.

↓ Gorren Komunitatearen IX. Sentsibilizazio Astea

IRAILAK 23TIK 30ERA

■ **Erakusketa.** San Frantziskon erakusketa: Zurezko lan batzuk jarriko dituzte. Era berean, kultur etxeko balkoian oihaltzatuko zintzilikatuko dituzte pertsona gorrei egokitzen zaizkien ohiko komunikazio mugak islatzeko.

IRAILAK 26 ETA 27

■ **Hitzaldiak.** Gorren komunitateari eta gorrei buruzko hitzaldiak emango dituzte lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutakoak. Hilaren 26an, Tolosako Laskorain ikastolan eta hilaren 27an, Ibarrako Uzturpe ikastolan izango dira.

IRAILAK 28 ETA 29

■ **Erakusketa.** Hainbat ikaste-

txeetako haurrek egindako marrazkien erakusketa egongo da, kultur etxean.

IRAILAK 29, LARUNBATA

Gorren Nazioarteko Eguna.

■ **10:00-14:00.** Pertsona gorren artisautza lanak egongo dira, Triangulua plazan.

■ **10:00.** Zeinu-dantza eskola gorrentzat eta entzuleentzat, Tolosako kultur etxean.

■ **10:30.** Traineruan lagunarteko lehiari Tolosako Orian ibaian: Gaunditzen, Euskal Gorrak eta Fevapas elkarteko kideak lehiatuko dira.

■ **11:00-13:00.** Haurrentzako jolasak izango dira, Triangulua plazan. Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Zerbaki bat banatuko zaie, eta zortedunek opari bat jasoko dute.

■ **12:00.** Manifestuaren irakurketa egongo dute, Tolosako Triangulua plazan. Haurrek eginko marrazkien sari banaketa egongo da.

■ **Ondoren.** Dastatzea: gazta, piperrak, txistorra eta sagardoarekin.

■ **17:00.** Leidor aretoan, *Isiltasuna dantzan* ikuskizuna eta Ainhua Moiuaren emanaldia izango da. Zea Mays taldearen *Negua joan da ta abestia* zeinu bidez interpretatuko du.

■ **18:00.** Antzerki emanaldia izango da, Leidor aretoan: Madrilgo El Grito antzerki taldeak *Cinco horas con Mario* (Bost ordu Mariorekin) obra antzetzuko du.

Haurrek 3 euro eta helduek 5 euro ordaindu beharko dute sarrera.

Euskararen alde lasterka, Leitzan

Bihar, 16:30ean emango zaito hasiera euskararen aldeko festari; parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute

E. Maiz Leitza

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bultzatuta, Leitzan ere, lasterketa egongo dute, bihar. Kontseiluarekin batera Leitzako euskara zerbitzua eta Aurrera El-

karteak aritu dira ekimena prestatzen. Bihar 16:30ean emango zaito hasiera lasterketari, eta haurren txanda izango da lehenengo. 17:00etan, berriz, helduek egin beharko dute lasterka. Herriko erdi-gunetik aterako dira korrikalariak, eta plazan bukatu. Ibilbide laburra izango da: 0-9 urtekoek, 800 metro; 10-15 urtekoek, 2.250 metro eta helduek, 4.500 metro.

Izen ematea Maimur eta Astitz liburu-dendetan edo www.euskarabiznahidut.org helbidean

egin daiteke. Era berean *Euskaraz bizi nahi dugu* lelodun elastikoak ere erosi ahal izango dira eta haurrek, bi euro ordaindu beharko dute apatu kamisetarik gabe ateratzen badira, eta zazpi euro kamisetarekin. Helduen kasuan, bost euro ordaindu beharko dute kamiseta hori gabe egin nahi duenak, eta 10 euro kamisetarekin. Parte hartzaile guztien artean opariren bat ere zozketatuko dela eman dute jakitera antolatzailerek.

Krisia «inoizko iruzurrik handiena» dela salatu du LABek

Sindikatuak irailaren 26ko grebarako deia egin du, krisiaren erantzuletzat gobernua joz

Itzea Urkizu

«Inoiz ikusi dugun iruzurrik handienaren aurrean gaude», halaxe nabarmendu dute, LAB sindikatuko zenbait ordezkariak, greba orokorraren harira egindako agerraldian.

Besteak beste, krisi egoeraren erantzuletzat jo dituzte gobernuak: Madrilgoa, eta baita Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarroakoa ere.

Hain zuzen ere, «Gasteizen eta Iruñean gobernatzen ari direnak» hipzide izan dituzte, LABen ustez «beharrezko laguntzailen» baitira, «iruzur erraldoi honetarako». Gobernuek, bankuak onbidera eramateko erabilitako

100.000 milioi euroak «herritarrei ordainarazi» nahi dizkielara diote.

Egoera honi, Raxoiren gobernuak ezarritako neurri eta murrizketak gehitu dizkiote sindikatuko kideek: «Gure eskubide sozial eta laboralen lapurreta berri bat da: zerbitzuak murrizten dira eta langabeziako laguntzak kendu nahi dituzte, BEZa igotzen dute, sektore publikoa pribatizatu, osasungintzan berrordainketa ezarri, enplegua suntsitu, menpekotasuna duten pertsonak bertan behera utzi...». Hitz batean, boteretsuenek dirua pilatzen jarraitzeko neurriak direla azpimarratu dute LABeko kideek.

«Pobrezia kondonatuak»

Gazteak, emakumeak, pentsiodunak, etorkinak, ezintasuna duten pertsonak nahiz guraso bakarreko familiak aipatu dituzte LABeko kideek, kolektiborik prekarizatuak bezala; dena den, gizarte osoa «pobrezia basatiki



LABeko kideek Beasainen egin zuten, atzo, agerraldia. GOIERREIKO HITZA

kondonatzen» ari direla gaitzetsi dute.

Honen harira, sindikatu aber-tzaleak ez du sinesten bide posible bakarria hori denik: «Hau da aukeratu duten bidea, egiten ari direnaren jakitun eta kontziente izanda (...). Ekonomiatik kontrol politiko eta sozial oro ari dira ezabatzen».

Honi guztiari erantzuteko beharra azpimarratu du sindikatukoak, eta erantzun horrek «beste eredu bat» ekarriko duela diote:

«Bada garaia Euskal Herrian beste eredu baten alde egiteko. Gizarte parte-hartzean oinarritutako

Euskal erakundeek «Madrilgo diktadura ekonomikoa» jasaten dutela salatu dute

eredua, eta ez banka eta multinazionalen agindutara dagoena».

Eredu honen alde egin, eta «Euskal Herriko instituzioek Ma-

↓ Greba orokorra

DEIALDIAREKIN BAT EGIN DUTEN HAINBAT ENPRESA

- Munksjo, Elduain.
- Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Tolosa.
- Aralar, Armezqueta.
- Lantier, Ikaztegieta.
- Unipapel, Aduna.
- Cadinox, Belauntza.
- Inoximek, Belauntza.
- Orbinok, Anoeta.
- Pasaban, Albiztur.
- Tolosako Udala.
- T. Bost, Asteasu.
- Bostek, Asteasu.
- Borobil, Villabona.
- Antalis, Albiztur.
- SAM, Tolosa.
- Arteka, Villabona.
- Ibarra Udal.
- Leibi, Asteasu.
- Laskorain ikastola, Tolosa.
- Perot, Zizurkil.
- Sarrio, Leitza.

drildik inposatu nahi diguten diktadura ekonomikoaren aurrean planto egiteko», Euskal Herriak erantzun bat emateko deia egin dute beraz; sindikatuaren ustez, «bada garaia, hemen, murrizketa eta neurri antisozialak aplikatuko ez direla esateko, horrela eskatu baitu gehiengo sozialak mobilizazio eta greba askoren bidez».

Datorren irailaren 26ko greba orokorraren bidez ere, aldarrikapen berak egingo dituztela azaldu dute ordezkariak, honenbestez.

Euskarak Tolosan bizi duen egoeraz ariko dira kafe-tertulian

Galtzaundiren egitasmoak bat egingo du Kontseiluaren 'Euskaraz bizi nahi dut' ekimenarekin

I. Urkizu

Euskarak Tolosan egin duen ibilbideaz, talde dinamikan eta kafea hartuz hausnartzeko aukera izango da, bihar, Zerkausion.

Galtzaundi Euskara Taldeak kafe tertulia antolatu du, *Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?* izenburupean. 11:30etik aurrera, beraz, Tolosako euskaltzale guztiei dei egin nahi izan diete, Zerkausiko goiko solairura bertaratu daitezen; euria egiten bada, kultur etxeko beheko solairuan elkartuko dira.

Helbururik behinena, euskarak gaur egun Tolosan bizi duen egoeraz hausnartzea eta hitz egitea da, lagun giroan. Horregatik,

eta taldekako dinamika hori aberaste aldera, antolatzaileek askotariko parte hartzaile euskaltzaleak bertaratzera nahi dute: «Gazte nahi heldu, eta hainbat sektoretako herritarrak biltzea».

Aipatzekoa da, Zerkausia aukeratu dutela kafe-tertuliarako, merkatua egiten den gunea delako; «euskararen gunea», beraz.

Egitasmo honek bat egingo du, bihar Kontseiluak Euskal Herri mailan antolatuko duen *Euskaraz bizi nahi dut* ekimenarekin.

→ Laburrak

Errioxako upategi batera irteera, ikaztegietatik

AISIA | Ikaztegietakoko Herrigin-tza elkarteak antolatuta, Errioxako David Moreno upategira irteera egingo dute, urriaren 6an. 09:00etan irtengo dira, eta han hamaiketako eta poteoa egin ondoren, bazkaltzera joango dira. Bazkideek 42 euro ordainduko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 50. Datoren asteartea, irailak 25, izena emateko azken eguna da.

Alliri auzoko herri bazkari txartelak salgai

GIZARTEA | Tolosako Alliri auzoan, irailaren 29ko herri bazkari txartelak salgai daude, Alliri tabernan. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute, eta haurrek, berriz, 6 euro.

Udaltzainek bizikleta zaharrak bildu dituzte

GIZARTEA | Udaltzaingoak, Tolosako bizikleta aparkalekutan, aspalditik eta egoera txarrean zeuden bizikletak kendu ditu; epe batean biltegian edukiko ditu. Erreklamatzeko Udaltzaingora jo, edo deitu 943 67 58 58 telefonora.

Elketa Jatetxea

- ◆ Eguneko menua (astelohenerik ostiralera)
- ◆ Plater konbinatuak (ostiral, larunbat eta igande gasuetan)
- ◆ Menu berezia (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
Erreserba egiteko: 943 65 21 16
www.elketa.com

Iruran herritik herriarentzat egindako jaiak hasiko dira, gaur

San Miel Jaietarako sei eguneko egitaraua antolatu du Irurako Jai Batzordeak, bi asteburutan banatuta

Asier Imaz Irura

Herritik herriarentzat, filosofia horrekin egin du lan Irurako Jai Batzordeak. Gaurtik aurrera, emaitzaz gozatzeko garaia izango da. Haur, gazte eta helduentzako festa antolatzen saiatu direla esan zuten atzo, batzordeko hiru kideek, San Miel jaien aurkezpen ekitaldian.

Festen hasierako txupinazoa Ametsa pilota eskolako kideek botako dute. Jai Batzordeko kideen esanetan, herriko xare eskolari omenaldi xume bat egiteko aukera izango da, «hain irurarraren kirol hau hauspotzen egiten duten lan guztiagatik».

Bi asteburu, eta urrian bi egun Gaur hasiko diren jaiak ondorengo bi asteburuak bereganatuko dituzte. Ondoren, urriaren 4ean eta 14ean, jubilatuei zuzendutako festa egunak izango dira.

Udalak Zero Zabor politikarekin duen konpromisoa agertzeko, hainbat ekimen bultzako ditu egun hauetan, tartean barrikote-



Irurako Jai Batzordeko hiru kidek aurkeztu zituzten jaiak, atzo. A. IMAZ

rako ekarriko dituzten mahai tresna konpostagarriak aipatu behar dira.

Irurako jaietan musikak garrantzi handia duela jakina da, azken urteetako kontzertuak direla horren lekuko. Aurten ere, arlo horretan, apustua egitea erabaki dute, eta La Pegatina talde ospetsua ekarriko dute. Katalunarrak Iruran ematen duten biga-

ren kontzertua izango da hilaren 22koa; lehena duela lau urte eskaini zuten, hura ere jaietan. La Pegatinakoekin batera Ze Esatek! ariko da oholtza gainean.

Egitarau guztia jaietako liburuxkan bildu dute, eta honen azalean, lau urteko Garazi Sanzen marrazkia polita jarri dute, lehiaketako irabazlea izaki.

Azkenik, jai batzordeko kideek

eskerrak eman nahi izan zizkien ekarpenak egin dituzten herritar eta lantegi guztiei, jaiak antolatzeko garaian. Horrez gain, jai euskaldun eta parekide hauez gozatzera gonbidatu zituzten irurar eta eskualdeko herritar guztiak, beti ere, errespetuan. Herensugearen erreketa, azken egunera, beltzez jantzitako joateko gomen-dioa luzatu zuten.

↓ Egitaraua

IRAILAK 21, OSTIRALA

- **18:30.** Agurra, txupinazoa eta herensugearen jaietsiera.
- **19:00.** Haur eta helduen dantborrada.
- **21:00.** Barrikotea. Aurten udalak edalontziak, platerak eta mahai tresna konpostagarriak jarriko ditu. Berrerabilgarriak ekartzan ez dituenak hauek erabili beharko ditu, zabor gutxiago sortzeko.
- **23:00.** Dantzaldia Erromeria taldearekin.

IRAILAK 22, LARUNBATA

- **09:00.** Gazte festaren hasiera.
- **10:45.** Txu txu tren eta puzgarriak.
- **13:00.** Gazteen dantza soka.
- **14:00.** Haurren bazkaria plazan.
- **14:30.** Gazte festako kideen bazkaria Share Elkartean atarian.
- **15:00.** Haurrentzako eskulana, trinketea.
- **16:00-18:00.** Haurrentzako jokoak, trinketea.
- **17:30.** Gazte festakoentzat jolasak, plazan. Eguraldi txarra egiten badu, frontoian.
- **19:00.** Gazteen dantza soka.

- **21:00.** Gazte festakoan afaria Aizpurua jatetxean.
- **23:30.** Kontzertua Ze Esatek! eta La Pegatina taldeekin.

IRAILAK 23, IGANDEA

- **10:30.** Molto Grand Prix lasterketa 2/5 urte arteko haurrentzat, Ibaio Ondo pasealekuan.
- **11:00-14:00 eta 16:00-18:00.** Haur parkea Loatzo plazan eta Paper kalean.
- **18:30.** Sagardo dastatzea, Iñaki eta Gari trikilariek girotuta, afalordura arte.

IRAILAK 28, OSTIRALA

- **17:30.** Umeentzako *Kultura plazara* ikuskizuna Iriren lagun klubak taldearen eskutik.
- **19:00.** Kalejira buruhandi eta erraldoekin, eta Loatzo Musika Eskolako txistulariekin. Ondoren, txistor jatea Share Elkartean atarian.
- **19:30.** Herriraren aldarrikapen ekimena. Añoetik Irurarako bidea egingo dute elkarretartzean, euskal preso eta iheslariaren eskubideen alde.
- **22:30.** 29. Play Back jaialdia. Parte hartzaileek musika MP3 formatuan eraman beharko dute 21:30erako.



Jana eta edana ez da faltako aurten ere, Irurako jaietan. A. IMAZ

- **00:00.** Dantzaldia Gugaz taldearekin.

IRAILAK 29, LARUNBATA

- **09:00.** Diana txistularien eskutik.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Herri hamaiketako plazan, eta Gazte Alaia Elkartean.
- **18:30.** III. Areto triatloia: Ano-

etako eta Irurako taldeen arteko norgehiagoka.

- **23:00.** Dantzaldia Laiotz taldearekin.

IRAILAK 30, IGANDEA

- **10:30.** Añoeta, Villabona, Ibarra eta Irurako dantzari txikien emanaldiak plazan, eta kalean zehar.
- **13:00.** Dantza soka.

- **14:30.** Herri bazkaria. Zaintza zerbitzua egongo da 2003 eta 2009 urteen artean jaiotakoentzat. Izena emateko epea hilaren 27an bukatuko da.
- **19:00.** Bertso saioa plazan. Bertsolariak: Sustrai Colina, Jon Maia, Alaia Martin eta Agin Rezola. Gai jartzaila: Mendiluze.
- **21:00.** Herensugearen erreteza.

URRIAK 4, OSTEGUNA

- **16:30.** Erretirodunen jokoak Zaharren Biltokian eta plazan.

URRIAK 14, IGANDEA

- **12:00.** Meza nagusia.
- **14:00.** Bazkaria Zaharren Biltokian, erretirodun eta pentsiadunentzat. Izena urriaren 11ra arte eman daiteke. Bazkaria 10 euro izango dira.
- **Ondoren.** Jokoetako sari banaketa eta musika dantzagarria, Zaharren Biltokian.

Taberna - Jaietxea
Zaharren Biltokia
Sanmielak, ondo pasa!

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontura egokitzen gara
- Menu bereziak

Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

Irurako Ikastola

- (2-12 URTE)
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

“HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN”

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zilar kalea 4 • San Migel 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

Presoak eta euren senideak «suntsitu» nahi dituztela salatu dute

Salbuespen egoera salatu dute eskualdeko preso eta iheslarien senideek, adibide zehatzekin

Asier Imaz

Eskualdeko preso eta iheslarien senideek, hainbat herritarren babesarekin, agerraldia egin zuten herenegun, Villabonako Gurea zineman. Azken hilabeteetako gertaerak arrazoitzat hartuta, ondorio bat plazaratu nahi izan zuten: «Gu suntsitu nahian dabil-tza». Ustezko helburu hori horrela dela argi duten bezala, «politika horren» porrota ere argi dute: «Ez dute lortuko; gure senideei babes osoa ematen jarraituko dugun». Hala eta guztiz ere, «egoe-ra jasanezina» bilakatu dela onartzen dute, eta «aurre egiteko», eskualdeko herritar guztien laguntza eskatu zuten: «Guztionez indarrak beharrezkoak izango dira; guk ez dugu etsiko gure senideak gurekin etxean izan arte».

Adibide zehatzak

Preso eta iheslarien senideek, salaketa egiteko garaian, adibide zehatzak jarri zituzten mahai gainean. Dispersioak, espetxeetako salbuespen politikak eta 197/2006 doktrinak sortzen duen sufrimendua, izen abizenekin deskribatu zuten.

Eskualdeko presoak Tolosalde-tik milaka kilometrotara daude. Sakabanaketa politika honek, astebururo-astebururo bidaia luzeak egitera behar izan dituzten preso senide eta lagunak, «gure bizitzak errepideetan arriskuan jarritik», azaldu zuten senideek. Mikel Egibar preso zuzurkildararen emazte eta seme-alabek, bisitatik bueltan zetozela izandako auto istripuak, abuztuaren 7an, gauza bat argi uzten duela esan zuten:



Eskualdeko preso eta iheslarien senideen agerraldia, Villabonan. A. IMAZ

«Sakabanaketak ez du inongo bereizketarik egiten, adin txikikoek ere sufritzen dutelarik». Egun, denak etxean daude, baina Egibarraren emaztea oraindik osatze prozesuan dago.

Milaka kilometro horien helmugan, espetxeak daude, eta hauetan, senideen esanetan, bizi baldintza «krudelak»: Euskal presoak «isolaturik eta bakarturik edukitzen dituzte». Manex Castro preso billabonatarra eta

Mikel Egibar zuzurkildarra isolamenduan dituztela salatu zuten, baldintza gogorretan. Oskar Zelarrain billabonatarra, aldiz, bakarrik daukate, hau da, Alcala Meco espetxean bost hilabete daramatza bakarrik, inongo kiderik gabe.

Espetxe politika honen helburua presoaren suntsipena dela azpimarratu zuten senideek, eta hori «areagotzeko» 197/2006 doktrina ezarri izana salatu zuten:

«Bizi osorako espetxe zigorra ilegala den arren, gure senideei aplikatu egiten zaie». Horren adibide moduan, espetxean hogeitak gora daramatzen Pello Odriozola tolosarrarekin gertatua azaldu zuten: «2008an kalera irteteko zen, eta doktrina aplikatu ondoren, espetxe zigorra 10 urtez luzatu zioten». Peio Zelarrain billabonatarra, aldiz, «gaizki ulertu batengatik» espetxean dagoela esan zuten, nahiz eta zigorra bete izan. Senideentzat, honek, ondorengo uzten du agerian: «197/2006 doktrinaren bidez luzatu ezin dutenean, beste sistema batzuk erabiltzen dituzte espetxealdia luzatzeko».

Salbuespen egoera honi iheslari-eriek jasaten duten «jazarpena» salatu zuten senideek, Juan Mari Mujikarekin gertatua azalduz: «Bizitza guztiz publikoa egiten baldin bazuen ere, Barkoxen atxilotu egin zuten. Ondoren, Espainiaratu egin dute, eta egun, Soto del Realeko espetxean dago, isolamendu egoeran».

Irudia › Lizartza



AGIRREBARRENATARREI ONGIETORRIA

Kontsuelo eta Ibai Agirrebarrenari, izeba eta ilobari, ongietorria egin zieten Lizartzan, iragan igandean. Lehenak hiru urte igaro dituzte espetxean; lehen bi urteak bigarren graduak, eta azkena, egu-

nero lo egitera Martutenera joanez. Bigarrenak urtebete baino gehiago egin du Frantziako espetxetan. Herriko plazan 300 lagun inguru elkartu ziren, eta ondorengo bazkarian 160. HITZA

→ Laburrak

Erreka garbituko dute bihar, auzolanean

ZIZURKIL › Zero Zabor taldeak erreka txukuntzeko auzolana deitu du hilaren 22an, bihar. Joxe Arregi plazan 09:00etan elkartuko dira, eta Asteasu erre-kara joango dira. 13:00ak arte ariko dira txukuntze lanetan. Galtza luzeak, oinetako itxiak, eskularruak eta aldatzeko arropa ekartzeko gomendatu dute.

Nording walking eta Qi Gong ikastaroak

ANOETA › Nording walking eta Qi-Gong ikastaroetan izena emateko epea hilaren 27an amaituko da, udaletxean, liburutegian edo kiroldegian. Nording walking makiez lagunduta ibiltzeko teknika da, eta hilaren 28an, doako aurkezpen saioa egingo dute kiroldegian, 18:00etan. Qi Gong menopausiarekin loturiko ikastaroa da.

Hil ala biziko errebote partida Behar Zanarentzat

AMASA-VILLABONA › Behar Zanak eta Zubietak hil ala biziko errebote partida jokatu dute hilaren 23an, igandean, Villabonako plazan. Partida 11:00etan hasiko da, eta 63. Enrique Abril Txapelketan billabonatarrek aurrera jarraitu nahi badute, nahita ez irabazi behar dute lehia. Bestalde, Behar Zanatik gogoratu dutenez, argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 14ean amaitzen da.

Hauteskunde mahaietako kideak aukeratuko dituzte

AMASA-VILLABONA › Ez ohiko osoko bilkura egingo dute hilaren 24ean, astelehenean, Villabonako udaletxean, 12:00etan. Bertan, hauteskunde mahaietan egongo diren herritarrek aukeratuko dituzte, zozketa bidez.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Txintxarri elkarteak 50. urteurrena ospatuko du

Hasieratik bazkide diren zortzi kideri omenaldia egingo diote biharko bazkariaren ondoren

Imanol Garcia Landa

Alegiako Txintxarri elkarteak bere 50. urteurrena ospatuko du asteburuan. 1962an sortu zen, bezaz, eta herrian dauden hiru elkarteetatik zaharrena da. Hasieratik bazkide izan direnei eta egun bizi direnei omenaldia egingo diote, bihar, bazkariaren ondoren. Periko Agirre, Jose Luis Alustiza, Mikel Artano, Antonio Iraola, Santos Irazustabarrena, Jose Iriarte, Antonio Mari Larrarte eta Miguel Larrarte izango dira omendukoak.

Elkarte dagoen lekua oilategia zen aurretik, eta hasieran alokairuan hartu zuten, hilero 500 pezeta jarritz. «Herrian zerbait egin behar zela eta, elkarte bat sortzea pentsatu genuen», dio Mikel Artanok. Txintxarri kultur elkartearen izenarekin sortu zen, baina kritikak jaso zituzten jatera eta edatera bakarrik joaten zirela esanez.

Hainbat urtetan kultur astea antolatatu zuten, baina kultura



Elkarteko zenbait kide, 1966ko irudi batean. HITZA

nahi baino gutxiago jorratu dutela diote: «Elkarteak diru asko eskatzen du, beti diru faltan kanpora begira gauzak egiteko». Horren adibide, 1969an lokala erosi zuteneko garaia gogora ekarri dute. «30.000 pezeta jarri behar izan zuen bazkide bakoitzak, eta hori ez da berriro itzuli. Garai haietarako diru asko zen», dio Jose Luis Alustizak.

Hainbat obra egin dira 50 urte hauetan. «Bolatokia ere izan genuen, oraingo ibaiaren horma baino haratago iristen zena», dio Santos Irazustabarrenak. Gero lokala handitu egin zuten eta udalari zati bat utzi zioten, «doan» nabarmentzen dute,

ibaiaren ondoko pasealekua egiteko. Lokalaren azpian ere sotoa egin zuten. Obrak auzolanean egin dituztela nabarmendu dute.

Abesteko joera

Egungo lehenakaria den Juan Goikoetxeak elkartearen asko abestu dela dio: «Elkartetik ere ateratzen ginen eta txikiteoan aritzen ginen kantuan. Erronda ere ordaindu izan digute». Hasierako garaietan giro gehiago izaten zela diote: «Gazte ginela egunero bolotan edo tokan, afariak... egiten genituen». Menuan ohikoena parrillan egindako jakiak izaten ziren: txuleta, saiheskia, bisigua,...

Funtzionamendua ere aldatu



Artano, Goikoetxea, Irazustabarrena eta Alustiza, Txintxarri elkartearen. IGL

↓ Egitaraua

IRAILAK 22, BIHAR

- 12:30. Elkartearen hasita trikitipoteoa izango da herriko bertsoarien laguntzarekin.
- 14:30. Bazkide-bazkaria elkartearen trikitilariak eta bertsoariak alaiturik. Bazkariaren ondoren, omenaldi xumea elkartearen sortu zenetik bazkide izaten jarraitzen duten kideei.

egin da. Orain lekua aurretik eskatu behar da, eta lehen ez zen horrelakorik egiten. 80 bazkide dira egun eta beste hainbat elkartetan

IRAILAK 23, ETZI

- 11:15. Txintxarri abesbatzak abestutako meza hildako bazkideen alde.
- 12:00. Alegiako musika eskolaren kalejira egingo du herriko txokoak alaituz.
- 12:30. Elkartearen hamaiketakoa eskainiko dio, pasealekuan, bertara hurbiltzen den guztiari.

bezala, familia giroa izaten da batez ere. «Ezin gara kexatu dugun elkartearekin», diote bazkide berenok.

Iker Galartza solaskide, Bidegoiango kultur astearen lehen ekitaldian

I. Garcia Landa Bidegoian

Bidegoiaren kultur astea hasiko dute astelehenean eta igandera arte ekitaldiak izango dituzte. Iker Galartzarekin solasaldia antolatuko dute astelehenerako, hilak 24, 21:00etan, udaletxeko bilkura aretoan.

Kultur astearren barruan, hilaren 28rako, ostirala, herritarren arteko patata tortilla lehiaketa antolatuko dute. Bertan parte hartu nahi duenak izena eman behar du, udaletxean, hilaren 27a baino lehen.

Berriro lortu du Intxurrek Koba Tours Torneoa

Seguran Aitzgorri futbol elkartekoei irabazita eskuratu dute bigarren aldiz antolatutako txapelketa

I. Garcia Landa Alegia

Aurki hasiko dute Alegiako Intxurre futbol taldeek denboraldia. Hain justu, kadete mailakoak aurreboraldian, Intxurreko zenbait taldek 2. Koba Tours Torneoan parte hartu zuten eta aurreko urtean bezala, garaipena eskuratu zuten Segurako futbol zelain.

Torneoan Intxurreko hiru talde eta Aitzgorriko beste hiru tal-

de parte hartu zuten. Erregional eko 1. mailako taldeen arteko partidaren Intxurrek 3-1 irabazi zuen. Jubenilen mailan Aitzgorrikoek lortu zuten garaipena, 2-1 eginez. Hirugarren partidaren, Alegiako kadeteek erraz irabazi zuten, 7-0ko emaitzarekin. «Egun pasa ederra antolatuko zuten Aitzgorriko taldeak eta eskerrak ematen dizkiegu», azaldu dute Intxurreko arduradunek.

Infantilak ere izan ziren Seguran, eta torneotik kanpo bada ere, hirukoa jokatu zuten Aitzgorrikoek osatu zituzten bi talderen aurka.



Intxurreko kadete mailako Ander Garin saria jasotzen. PATXI RENOBALES

Iragarki laburrak

LANA

■ **Pintorea.** Tituludun pintorea eskaintzen da, edozein lanetarako. Prezio ekonomikoa. Interesatuek, deitu 680 449273 telefono zenbakira.

■ **Neska euskalduna.** Etxeko lanak egiteko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesatuek, deitu 620 305931 telefono zenbakira.

2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)

TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradedaraino sarbidea kotxez

Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.

1go enkantea: irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan

2. enkantea: irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Ibarra.** Subegi Kultur Elkartearen etorkizunak hitz egiteko bilera, gaur, 19:00etan, Subegin bertan.
- **Tolosaldea.** Mugikortasun Astearen barruan, bihar, 10:30etik 13:30era bigarren eskuko azoka Villabonako Berdura plazan, era berean Tolosako hiribusa doan izango da eta Trianguloa plazan txokolate berro banatuko dute. Igandean, 10:30ean VI. Tolosaldeko Irris-tagailu-Bizikleta Martxaren irteera ikaztegieta eta Asteasutik, eta 11:30ean, Anoetan, hamaitketakoa egingo dute.
- **Tolosa.** Abay gobernuz kanpoko erakundeak Etiopiarra laguntza bidaltzeko bigarren eskuko merkatu txikia jarriko du bihar goizean, Trianguloan.
- **Zizurkil.** Zero Zabor taldekoek erreka bazterrek garbitzeko auzolanerako deia egin du biharko, 09:00etan bilduko dira Joxe Arregi plazan.
- **Ibarra.** Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezia, igandean, 10:00etatik 14:00etara. Bi gunetan egongo dira postuak, San Bartolome plazan eta Emeterio Arrese parkean. Era berean, XV. Ezti Lehiaketa, eta Piperrada eta Pintxo Lehiaketa izango dira.
- **Ibarra.** Izaskun izena dutenen jaia igande honetan, Izaskunen. Lehenengo Toka Txapelketa egingo dute eta bazkaria Izaskun jatetxean egingo dute.
- **Leaburu.** Erretirodunen Eguna ospatuko dute igandean. Bazkaria Zazpi Bide elkartearen egingo dute.
- **Tolosa.** Alliri auzoko festetako hilak 29ko bazkarirako txartelak Alliri tabernan erosi daitezke, hila 23a baino lehen. Helduek 15 euro eta txikiek 6 euro ordaindu beharko dute.

ARTE ESZENIKOAK

- **Tolosa.** Leidorren, gaur, Agustín Jimenezen bakarrizketa saioa, 20:30ean. *Antología* ikuskizuna eskainiko du.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren bihar 19:30ean *El irlandés* eta 22:30ean *La felicidad nunca viene sola*. Igandean 17:00etan *Brave* haurrentzako filma, eta 19:30ean *La felicidad nunca*

viene sola. Astelehenean, ikuslearen eguna, *El irlandés* ikusi ahal izango da 20:30ean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Tolosa Gasak eta Tolargik 2013ko egutegia egiteko antolatzen duten argazki lehiaketako lanak ikusi daitezke Aranburu jauregian, urriaren 6a arte. Argiak eta itzalak daurretengo gaia.

KIROLAK

- **Tolosa.** Bihar Usabal kiroldegiko goiko kantxan 12:00etatik 11:30etara saskibaloia: kadete nesken T. Aralar-Goierri, eta 18:00etatik 19:30era areto futbol: Laskorain-Aurrera Vitoria. Futbol zelaian berriz, infantil mutilen Tolosa CF-Añorga, kadeteen Tolosa CF-Urola, infantilen Tolosa CF-Intxurre, preferenteko Tolosa CF-Urnieta eta jubenil eta kadete nesken Tolosa CF-Tolosa CF. Bihar Beotibarren 16:30ean jubenilen euskal ligako Tolosa CF-Anaitasuna. Igandean Usabalgo goiko kantxan 12:00etatik 13:00etara saskibaloia junior mutilen Bide-Bide-Loyola Indautxu; eta futbol zelaian alebinen Tolosa-Ostadar.

JAIK

- **Irurua.** Bihartik urriaren 14a bitarte Sanmiel jaiak ospatuko dituzte. Ikusi egitarua 5. orrialdean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Iñigo Eraso Mendiluze (Tolosa).

Bihar baiezkoa emango duzu? Zorionak laguneren partetik!

Tolosan etxe adosatua salgai:
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakia.



Inglés 1go urtetik. Metodo propio eta desberdina. Talde txikiak Zatoz Kids&Us ezagutzera!!!
Kids&Us Tolosa Iurre Auzoa, N°17-18 Bago 20400 Tolosa T. 639 300 711
tolosa@kidsandus.net. <http://tolosa.kidsandus.es>
www.kidsandus.es

2012-13
MATRIKULA IREKIA
MATRÍCULA ABIERTA

UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Authorised Centre

1 zortzi
berri
CANTO
BARRIO

BITZAIARONDO

ONARRIZKO MAILETATIK TITULAZIO
GORENETARAKO PRESTAKUNTZA JARRAIA
APRENDEZAJE CONTINUO DESDE
LO BÁSICO HASTA LA MÁXIMA TITULACIÓN

DONOSTIA: SINDARRETA, INTXARRERENDO
TELAKA 14 (centro)

LASARTE, UINDEIA,
VILLABONA, ALEGIA,
BERROIAN

T. 943 874 733 / www.elduaien.com